



ATERATZEN EZ DIREN KONTUAK



Save the Children

*Langileen pobreziaaren erradiografia
Euskal Herriko etxeetan*

Dokumentu hau laneko pobrezia eta lan-baldintzek duten eragina adingabeak dituzten etxeetan, txostenean oinarrituta dago. Ikerketa hau, ISEAKeko Lucía Gorjón eta Gonzalo Romerok burutu dute. Eskerrak eman nahi diegu Save the Childrenen programetara joaten diren zortzi familiei beraien testigantzak emateagatik. Eskerrak eman nahi diegu baita ere prozesu honetan parte hartu duten Save the Childrenen familia koordinatzaileei: Isabel Prior (Andaluzia), Pilar Valderrama (Andaluzia), Ana Luisa Muñoz (Euskadi), Elisabet Tapia (Balentzia), Arantxa Sagasti (Katalunia), Pilar Muniz (Madril) eta Estefania Vargas (Madril).



Save the Children

Jatorrizko ikerketa: **Lucía Gorjón** eta **Gonzalo Romero**. Save the Children Taldea: **Carmela del Moral** eta **Pablo Montero**. Sailaren zuzendaria: **Catalina Perazzo**. Diseinu taldearen koordinazioa: **Oscar Naranjo**. Euskadi txostena: **Iratí Álvarez** eta **Naroa Salgado**. Artea eta maketazioa: **Pablo Caprino**. Grafikoak: **Pablo Caprino**. Argazkiak: **Alba Lajarin**.



Edita:

Save the Children Euskadi
Maiatza 2025

5

Sarrera

6

1. Errealitate beraren bi adierazpide: lan-pobrezia eta haur-pobrezia Euskadin

10

2. Errenta-politikak

14

3. Gomendioak



Sarrera

Haurrak dira kolektiborik kalteberenetakoa pobreziaren aurrean, bere etxeko helduen mende daudelako zuzen-zuzenean.

Gaur egun, enplegu bat izateak ez du esan nahi ongizatea denik: familien %15,9 laneko pobrezian bizi dira Euskadin. Ondorioz, etxetako haur eta nerabeen %24a pobrezia egoeran da, haur-pobrezia eta lan-pobrezia txanpon beraren bi aldeak dira.


Horrenbestez, Euskadin familia asko laguntza publikoen mende dira seme-alabak hazteak dakarren kostuari aurre egin ahal izateko.

Agiri honetan, euskal familiak enplegua izan arren bizi-baldintza duinak bermaturik izateko mugatzen dituzten faktoreak aztertzen ditugu, baita horiek haurrengan duten inpaktua ere. Agiri honek politika publikorako gomendio batzuk biltzen ditu ondorio horiek arindu eta haurren pobreziaren zirkuluarekin hausteko asmoz, Euskadin haurrak babesteko funtsezko tresna gisa.

1. Errealitate beraren bi adierazpide: lan-pobrezia eta haur-pobrezia Euskadin

2023an, euskal batez besteko diru-sarrera baliokidea 25.051,08 €-koa izan zen urteko; beraz, **pobrezia-arriskua urteko 15.030,65 €-tan kokatzen da**, hau da, **hileko 1.252,54 €-tan**. Muga hori “pobrezia-atalasea” deritza, muga hori gainditzen ez duten pertsonak pobrezia-arriskuan dira berez. Haurren pobrezia-arriskuek, bereziki garrantzitsua da atalase horiek etxe-mota ezberdinetan nola aplikatzen diren ikustea:

1. Taula. Pobrezia-atalaseak €-tan Euskadin etxe-motaren arabera (2023)



Iturria: Egileak egina 2024ko EAEOn oinarrituta

Datu horiek bere testuinguruan jarri eta haurrengan duten inpaktua ikusteko, gogoan izan behar da Euskadin hazkuntzaren kostua 866 €-koa izan zela seme-alabako 2024an, hau da, %13 gehiago 2022koaren aldean eta %34 gehiago 2018koaren aldean.¹


“**Laneko pobrezia**” deitzen zaio pertsona batek enplegu bat izan arren haren eta bere familiaren oinarritzko beharrak betetzeko aski irabazten ez duenean. Euskadin, %13ra heltzen da enplegu bat izanik pobrezia edo gizarte-bazterkeria arriskuan

1 Save the Children. Hazkuntzaren kostua 2024an Euskadin, eskuragarri hemen: [El coste de la crianza en Euskadi ha aumentado un 13% en sólo 2 años, alcanzando 866€ al mes por hijo o hija | Save the Children.](#)

diren familien ehunekoa, eta %15,9ra heltzen da enplegu bat eta seme-alabaren bat duten familien kasuan. Gero eta prekarizazio handiagoa den testuinguru batek azaltzen du, hein batean, halako egoera: ordu gutxiko jardunaldiak, iraupen urriko eta errotazio handiko enpleguak, eta orduko soldata baxua duten enpleguak sustatzen dituen produkzio-ehuna, alegia. Inguruabar horiek guztiek, bereziki, kolektibo kalteberenei eragiten die.² **Halatan, laneko pobrezia eta haurren pobrezia elkar gainjartzen diren fenomenoak dira.** Etxeko helduek nahiko diru-sarrerarik ez badute, etxe horietan bizi diren haur eta nerabeen pobrezia eragiten dute.


Etxe-motak garrantzia du: laneko pobrezia handiagoa da guraso bakarreko familietan eta familia ugarietan

2. Taulako datuak. Nola eragiten du laneko pobrezia Euskadiko etxetan?



Familia ugarien kasuan (3 seme-alaba edo gehiago kargura dituztenak), laneko pobrezia %10 baino gehiagori eragiten dio. Arazoa areagotu egiten da guraso bakarreko etxetan, heldu bakar baten mende direnean: 10etik 4 laneko pobrezia egoeran daude.


Laneko pobreziaaren arrazoiak



2 Gaiaren inguruko eztabaidarako, ikus Anghel et al. (2018), Gorjón et al. (2024) eta Gorjón & Romero (2024).

Hauxe da Euskadin seme-alabak diren etxetako laneko pobreziaren aurpegia: emakumea, migratzailea eta autonomoa

Euskadiren eta estatuko batez bestekoaren arteko taula konparatiboa, informazio honen arabera



Genero-arrakalak bere horretan jarraitzen du Euskadiko laneko pobrezian eta kontziliazioan

Seme-alabak diren etxetan, laneko pobrezia sarriago ematen da emakumeengan gizonezkoengan baino, bai Euskadin, bai Espainiako estatuan. Besteak beste, lan-merkatuan emakumeek duten lanaldi partzial handiagoagatik.

- 2024an, emakumeek, batez beste, 27,6 ordu egin zuten lan astean zehar, gizonezkoek 31,6 ordu³ egin zituzten bitartean.
- Lanaldi partzialeko enpleguen %73a (123.200) emakumezkoenak dira, eta %27a gizonezkoena da.
- Emakumeen ia erdiek lanaldi partzialeko kontratu bat dute, lanaldi osokorik ez dutelako aurkitzen edo bere gain dutelako etxean seme-alabak zaintzea, edo soldata-arrakala areagotu egin delako.⁴

3 EUSTAT. Biztanleriaren jardueraren arabera inkesta. EAEko 16 urte eta gehiagoko biztanleria landunak lan egindako asteko orduen batez bestekoa, enplegu jarraitua eta ohiko lanaldia egin duena, hiru hilekoaren arabera, lurralde historikoari eta sexuari jarraiki (orduak) (1). 2024/IV.

4 EUSTAT. Biztanleriaren jardueraren arabera inkesta. EAEko 16 urte eta gehiagoko biztanleria landunak, hiru hilekoaren eta lanbide-egoeraren arabera, sexuari eta lanaldi motari jarraiki (ohiko lanaldia) (milaka) (1). 2025/I.

Jatorria

Bertakoak	Euskadin	10,8%
	Espainian	12,6%
EBko atzerritarrak	Euskadin	18,6%
	Espainian	26,6%
EBtik kanpoko atzerritarrak dira	Euskadin	67,2%
	Espainian	41,9%

Titulazioen homologazio faltak ezinezko bihurtzen die atzeritar jatorriko pertsonei beren titulazioarekin bat datozen goi-mailako kualifikazioko lanetarako sarbidea.

Enplegu-mota

Soldatapekoa	Euskadin	14,9%
	Espainian	14,4%
Autonomoa	Euskadin	25,9%
	Espainian	29,2%

Seme-alabak kargura dituzten etxetako laneko pobrezia kualifikazio gutxieneko sektoretan kontzentratzen da

Ikasketak

Lehen Hezkuntza	45,6%
Bigarren Hezkuntza	28,9%
Graduko	10,6%

- Seme-alabaren bat duten etxetako 10 langiletik 4 baino gehiago laneko pobrezian da Euskadin.
- Ostalaritzako 2 langiletik ia bat laneko pobrezian da Euskadin.
- Seme-alabaren bat duten etxetako eraikuntzako 10 langiletik 4 baino gehiago laneko pobrezian da Euskadin.

2. Errenta-politikak

Errentari buruzko politika publikoak funtsezko tresna bat dira herritarrentzako Ongizate Estatua bermatu ahal izateko eta gizarte-bazterkeria borrokatu eta prebenitzeko. Era berean, pobrezia arriskuan edo laneko pobrezian diren familientzako beste diru-sarrerara bat dira.

Errenta-politikak laneko pobrezia aurre egitera zuzendu behar dira, gizarte-bazterkeria murrizteko betetzen duten egitekoaz harago. Horren haritik, laguntza-mekanismo gisara arituko diren errenta-politika osagarri batzuk ezarri behar dira, baita pobrezia-atalasea modu jasagarri batean gainditzea ahalbidetuz enplegu duinerako aukera emango dieten programa batzuk ere.

Euskadin badaude pobreziaaren kontra borrokatzeko hainbat laguntza ekonomiko, besteak beste, hauek:

- **DSBE (Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta):** baliabide nahikorik ez duten pertsona eta familien oinarrizko betebeharrak estaltzeko hilerio ematen den prestazio ekonomiko bat da. Lan bat lortzeko ere laguntza da. Kasu batzuetan, DSBEk Etxebizitzarako Prestazio Osagarria (EPO) ere biltzen du, ohiko etxebizitzaren alokairu-gastuei aurre egiten laguntzeko.⁵

2022ko erreformaren ondoren, haurrak kontuan dituen ikuspegia ere jasotzen du errenta horrek, eta horren zuzkidura ekonomikoa bizikidetza-unitatearen kargura den seme-alaba kopuruaren arabera izan ohi da. Laguntza hori jasotzeko BGDS eskatu behar da.

- **BGDS (Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera):** Gizarte Segurantzak kotizatu ez duten pertsonen ematen den prestazio bat da, pobrezia edo gizarte-bazterkeriako arrisku-egoeran daudenei gutxieneko diru-sarrerara batzuk bermatzen dizkiena. Horren zenbatekoa ezartzeko, heldu eta haur kopurua hartzen da kontuan, DSBE bezala. SAHLO (Seme-alaben Hazkuntzarako Laguntza Osagarria) BGDSrekin batera kudeatzen da eta dagokion ekitaldiko urtarilaren 1ean den adinaren arabera bizikidetza-unitateko adin txikiko kide bakoitzeko ematen den hileko laguntza batean datza. Honako tarte hauen arabera ematen da: 3 urtetik beherakoak: 115€; 3 urtetik 6 urtera bitartekoak: 80,50€; 6 urtetik 18 urtera bitartekoak: 57,50€.⁶

⁵ LANBIDE, eskuragarri hemen: [Zer da Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta? - Lanbide](#)

⁶ [Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera - BGDS - Eusko Jaurlaritza](#)

DSBE eskatzeko aurretik BGDS eskatu behar den arren, bi laguntzak ez daude elkarri lotuta, mekanismo ezberdinak dituzte izapidetzeko, diseinatzeko eta jarraipenerako. Horren adibide argigarria da DSBE emateko banakoaren edo familia-unitatearen azken 3 hilabetetako diru-sarrerak eta aurreko urteko BGDS -errenta-aitorpenean oinarrituta- hartzen direla kontuan.

Lanaldi osoko lanik ez duten pertsonen kasuan, enplegurako suspergarriak dituzte, jardunaldi partzialeko lanak edo diru-sarrera baxuak dituzten langileei zuzendutako zuzkidura ekonomikoak dira, lortzen duten errentaren osagarri modura eta laneko merkatuan jarrai dezatela edo beren laneratzea sustatzeko. Laguntza horren helburua da pertsona baten diru-sarrerak betetzea lanaldi osoko lanik ez duelako edo soldata baxuko lanetan ari delako.

Azpimarratu beharra dago euskal ereduan diru-sarrera gabezia hori konpontzeko zuzkidura, kasu askotan, handiagoa dela lanaldi osoan arituko balirateke baino, lanaldi partzialeko jarduera sustatze aldera, pizgarri ekonomiko positibo bati eutsiz horrela enplegarritasuna hobetu bitartean. “Making work pay” deritzan fenomenoagatik gertatzen da hori, non lanak -prekarioa izan arren- ekonomikoki konpentsatzea eta prestazioak jasotzeko eskatzen den eskusibotasunaren aurrean laneratzea ez apaltzea bilatzen baita.⁷ Mota horretako politikek erakutsi dute bereziki garrantzitsuak direla laneko pobrezia egoeretan⁸ enplegu bat izan arren pobrezia-atalasea gainditzea lortzen ez duten etxetan.⁹

Enplegurako pizgarri horiek, ordea, ez dute haurren gaineko ikuspegirik, eta beraz, ez dute kontuan hartzen seme-alaba kopurua zenbatekoa zehazteko orduan, nahiz eta literatura espezializatuak eta nazioarteko esperientziak nabarmendurik duten laguntza horiek familia-eraketari moldatzeko dagoen beharra. Behar hori, hain zuzen, premia handikoa da familientzako prestazioetarako sistema unibertsalik ez den Espainia bezalako herrialdetan.¹⁰ Frantzia edo Herbehereak bezalako herrialdeetan, aldiz, soldata-osagarri eskuzabalagoak daude seme-alabak beren kargura dituzten familientzat, ez bakarrik birbanatze-kontuagatik, seme-alabak dituzten emakumeek erakutsi dutelako bereziki sentiberak direla laneko pizgarrien aurrean. Familia-ikuspegi hori ez izateak, beraz, mugatu egiten du aktibazio-politiken inpaktua kalteberatasun handieneko familietan, guraso bakarreko familietan, kasu.¹¹

7 Immervoll et al., 2007.


8 Weishaupt, 2013.

9 Lanau eta Lozano, 2022.

10 Lanau eta Lozano, 2022.

11 Whitmore Schanzenbach eta Strain, 2021; Bastian, 2020.

Hiru laguntza edo prestazio horiek elkarrekin bateragarriak dira, baldin eta pertsonak edo familia-unitateak betetzen baditu Lanbidek ezarritako baldintzak.^{12,13}



Euskadin hazkuntzaren kostua ordaintzen laguntzeko dauden neurriei dagokionez, hazkuntzarako laguntza unibertsal bat dago, familiei hazkuntzaren kostua arintzen laguntzeko. Laguntza hori 200 €-koa da 0 urtetik 3 urtera bitarteko seme-alaba bakoitzeko, eta beste 100 € gehiago ematen dira 7 urtera arteko bigarren edo hirugarren seme-alabarengatik. Era berean, ezohiko laguntza batzuk daude desgaitasuna eta mendekotasuna duten adingabeentzat.¹⁴

Beste alde batetik, Lanbidek enplegua aktibatzeko edo hobetzeko politika batzuk ditu. Horien artean, hauek ditugu:

- **Lehen Aukera:** Laneko esperientzia handirik gabe langabezian diren titulaziodun gazteak kontratatzeko.
- **50+ Programa:** Langabezian diren 50 urtetik gorako pertsonak urtebetez edo denbora gutxiagorako kontratatzea sustatzen du.
- **Morrokotudak:** Langabezian diren emakume eta gizonak sektore tradizionalki maskulinizatueta edo feminizatueta trebatzea eta kontratatzea bultzatzen du, genero-berdintasunaren ikuspegia landuz.

¹² Euskal Enplegu Zerbitzua.

¹³ LANBIDE. Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren titularrei buruzko estatistika, eskuragarri hemen: [2025. urteko diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrak, lurralde historikoaren arabera - Lanbide](#)

¹⁴ [Seme-alabak dituzten familientzako hileko laguntza berriak - Eusko Jaurlaritza](#)


- **Errelebo-kontratua:** Erretiro partzial batean erreleboa hartzen duen pertsonaren lanaldi osorako kontratazio mugagabea bultzatzen du.
- **Laneko Kontziliazioa:** Seme-alabak, mendekotasuna duten senideak edo muturreko osasun-egoera batean direnak zaintzeko eszedentzia hartzen dutenak ordeztzeko Langabezian dauden pertsonak kontratatzeko diru-laguntza.

Politika horietako batek ere ez die arreta berezirik eskaintzen seme-alabak dituzten langileei.


Hona hemen laguntza horiek jaso ditzaketen pertsonak aurkitzen dituzten oztopo nagusiak:



IKTtan trebetasun falta arrakala digitala dela-eta.



Aipatu laguntzak daudenik ez jakitea.



Laguntza jasotzeko egin beharreko izapidetarako agiririk ez izatea.



Prozesu luzeegiak, diru-sarrera faltaren arazoa areagotzen dutenak.

3. Gomendioak

Euskadin errenten arloan eta enplegua aktibatzeko dauden politikak eta familiak laguntzak jasotzeko orduan dituzten oztopo nagusiak aipatu ondoren, eskualde mailan kalteberatasun sozialean eta ekonomikoan diren familienganako arreta handiagoa nola lor daiteken aztertuko dugu.

» **Hazkuntzarako prestazio unibertsala 18 urtera arte zabaltzea eta Seme-alaben Hazkuntzarako Laguntza Osagarria (SAHLO) birdiseinatu eta berraztertzea**

Euskadin 0 urtetik 3 urterako haurrentzako laguntza unibertsala 18 urtera arte (adin hori barne) luzatzea proposatzen da. Familiei beren kargura dituzten adin txikikoen hazkuntzarako sortzen zaien kostua aldatu egiten da Seme-alaben Hazkuntzarako Laguntza Osagarrian ezarrita diren zenbatekoen aldean, Euskadin 2024an hazkuntzarako zen kostuan jorratzen dugun moduan. Horrenbestez, berebiziko garrantzia du prestazio unibertsala hazkuntzako etapa guztietara zabaltzea, laguntzen baturak hazkuntzaren benetako kostura egokituz.

Horrekin batera, SAHLOren zenbatekoak handitu egin behar dira hazkuntzak kostu handien dituen adin-tartetan, batik bat, 13 urtetik 17 urtera bitarteko nerabeengan. Adin-tarte horretan du hazkuntzak bere kosturik handiena Euskadin: 925€.

Beraz, etxetarako SAHLOren balioan birdoiketa bat eginez gero, hobeto estaliko lirateke elikadurari, hezkuntzari eta garapen integral nola egoki baterako beharrezkoak diren oinarritzko beste zerbitzu batzuei lotutako gastuak.

Jarraian proposatzen diren prestazioak kreditu fiskal itzulgarriak edo zuzeneko laguntzak izan daitezke.

» **Kreditu fiskal itzulgarriak**

Laguntzen euskal sistema zerga-kenkarietan oinarritzen da. Dena dela, kenkari horiek dituzten pertsona asko ezin dira kenkariez osorik baliatu, eta kreditu fiskal itzulgarriak aukera ona izan daitezke horren aurrean.¹⁵

15 Barragué, B., et al., Gestionando la renta de garantía de ingresos como crédito fiscal reembolsable: un estudio exploratorio centrado en el complemento de pensiones. Informe para la Viceconsejería de Empleo e Inclusión del Gobierno Vasco [Diru-sarrerak bermatzeko errenta kreditu fiskal itzulgarri gisa kudeatzen: pentsioen osagarrian oinarritutako ikerketa-azterlana. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetzarako txostena]. Eusko Legebiltzarra, Vitoria - Gasteiz, 2024, 33. or.

Hala, pobrezia egoeran diren pertsonentzako kreditu fiskalen zenbatekoak ordaindu beharreko zergak baino handiagoak direnean, zergapekoaren aldeko prestazio ekonomiko batean bihur daitezke. Hori kreditu fiskal itzulgarri bat izanez gero egin daiteke.

Kreditu fiskal itzulgarri horiek “tarte negatiboko” kenkari fiskalak lirateke. Hau da, zerga-kenkaria edo -onura egiteko zerga-oinarririk ez denean, zuzenean abonatu da, zuzeneko zerga-itzulketa edo -ordainketa bat bailitza.

Tarte negatiborik ez duten eta gizarte-babeserako sistematik kanpo diren zerga-kenkari tradizionalen alternatiba bat dira. Eredu hori erabilia izan da dagoeneko Erresuma Batua bezalako herrialdetan, “Child Tax Credit” estatu-programaren bidez, beste batzuen artean.

Erresuma Batuaren kasuan, une horretara arte zeuden zerga-kredituak “Child Tax Credit” bakar batean bildu ziren, eta laguntza-sare geroz errazago eta integratuari bide eman zion. 1997tik 2010era bitartean, transferentziak 18.000 milioi liberara igo ziren (2010eko BPGren %1,2) seme-alabak zituzten familientzako prestazioetarako.¹⁶ Erresuma Batuak murrizketa historikoak bizi izan zituen hamarkada horretan haurren pobrezia tasetan, ELGAko beste inongo herrialdetan baino gehiago.¹⁷

» **Errenta-aitorpenaren unibertsalizazioa eta kalteberatasun-egoeran diren etxeen identifikazio aktiboa**

Neurri horren bidez, hobetu egingo litzateke gizarte-prestazioen estaldura eta azkartu egingo litzateke gehien behar dutenentzako sarbidea, sarbide-arrakala edo non-take-up delakoa saihestuz horrela. Errenta-aitorpena egiteko derrigortasuna ezarrita, diru-sarrera gutxien duten etxentzat zigor ekonomikorik ez egotea bermatzen da, bazterkeria-arrisku handieneko familiak identifikatzea lekarke eta kenkari itzulgarriak ezartzen eta prestazioen estaldura hobetzen lagunduko luke.

Euskadin, 20.000€ edo gutxiagoko errentak dituzten familiak salbuetsita daude errenta aitortzen egitetik erreforma fiskal berriaren ondoren. Nolanahi ere, errenta aitortzen egiteko derrigortasuna ezarritik gero, Administrazioak eskura izango litzateke orain arte sistemak kanpo diren familien kalteberatasuna identifikatzeko behar litzatekeen datuak, eta hobetu egingo litzateke orain arte non-take-up tasa handia duten errenta-politiketarako sarbidea, bazterkeria-arriskuan diren etxe horiei zuzendutako informazio-kanpainak egin ahalko liratekeelarik.

16 Browne, J., & Phillips, D. (2010). Tax and benefit reforms under Labour.

17 OECD. (2011). «Doing Better for Families: United Kingdom». Paris: OECD Publica.

» **Haurrak kontuan dituen ikuspegia txertatzea DSBEn eta BGDSren prozedura eta betekizunetan**

Lanbidek BGDSren kudeaketa bere gain hartu duenetik agertoki berri bat zabaldu da bi programen arteko sinergiak hobeto aprobetxatzeko. Bi programen estaldurak badu hobetzeko tarte; beraz, izapide burokratikoak murrizteko eta laguntzak emateko automatizazio-prozesuak bultzatzeko urratsak eman behar dira, baita kalteberenei akonpainamendua eskaintzeko ere. Bi programek kontuan hartzen duten arren haurren ikuspegia guraso bakarreko familien zenbatekoak eta osagarriak zehazterakoan, soldaten errenten osagarritasunean sakondu beharra dago enplegua sustatze aldera, eta haurrak dauden etxetako zenbatekoak egokitu egin behar dira.

Hazkuntzari lotutako transferentziez denaz bezainbatean, seme-alabak dituzten familiek inflazio orokorra baino berariazko eta egiturazko inflazio handiagoa jasaten dute, eta adierazle hori hazkuntzako prezioen indize instituzionalizatua behar luke izan, hazkuntzak dakartzan gailentzearen konpentsazioa une oro nahikoa izan dadin bere helburua lortzeko.

Bi laguntzak batera kudeatzera jo behar litzateke, parametro berberak erabilia, desdoikuntzak saiheste aldera.

Azkenik, euskal biztanleriaren bizitzaren kostua estatuko batez bestekoaren gainetik dago. Hori dela eta, LGSren zenbatekoak Euskadiko bizi-mailari egokitu behar lirateke, bizitzaren eta hazkuntzaren kostuaren parekoa izateko.

» **Haurrak kontuan dituen ikuspegia txertatu enplegurako suspergarrietan**

Enplegurako suspergarrien zenbatekoa kalkulatzekoan, berriz, kontuan hartu behar litzateke adin txikikoak kargura izatearen inguruabarra, zenbatekoa handituz parametro horren arabera. Era horretan, familia-unitate batek aski diru-sarrera izatea ziurtatuko litzateke, pobrezia-aren atalasetik irteteko aukera emanez.

» **Leihatila bakarra laguntzak kudeatu eta eskatzeko, haurrentzako adeitsuak izango diren espazioekin**

Laguntzak jasotzen dituzten pertsonak harat-honat ibili behar izaten dira beren laguntzak aurrez aurre eskatu ahal izateko. Joan-etorri horiek oztopoak eta kostuak dakartzate laguntzak edo errentako politikak eskatzeko orduan. Horren haritik, nahasmena sortzen du pertsonak Administrazio ezberdinetara jo behar izatea laguntza horiek eskatzeko, eta ez da oso praktikoa. Udalerrietan leihatila bakarra sortuz gero, pertsonak erreferentzia-ko bulego bat lukete beren prestazioak

kudeatzen lagunduak izan daitezten. Izapideak zentralizatu egingo lirateke horrela, eta akonpainamendua eraginkorragoa izango litzateke.

Espazio horiek haurrentzako toki adeitsuak izan behar lirateke, ordutegiak direla-eta adin goiztiarreko seme-alabak dituztenak eurekin joan behar izaten dutelako izapideak egitera.

» **Euskadiko Haur Bermearen Estrategiaren garapena**

Zehazki, haurren pobrezia murrizteko bere lehen ardatzean, diru-sarrerak bermatzeko eta familiei laguntzeko prestazioak indartuz ikuspegi intersektzional bat erabilita.

» **Familien kontziliaziorako baldintzak hobetzeko neurriak**

Kontziliazioa da **laneko pobreziaren adierazleetako** garbi bat seme-alabak beren kargura dituzten pertsonengan. Kasurik gehienetan, emakumeak lanaldi partzialeko lanak onartzera behartuta ikusten dira beren bizitza profesionala eta adin txikikoen zainketa uztartu ahal izateko. Ondorioz, laneko genero-arrakala eta zainketena areagotu egiten da. Horren aurrean, Save the Childrenetik honako neurri hauek bultzatzen eskatzen diogu Administrazio Publikoari kontziliazio-baldintzak hobetu ahal izateko, hots: **Otik 3 urtera bitarteko eskolatzearen doakotasun unibertsala, enpresentzako zerga-onurak beren langileei kontziliazioa errazteko neurriak jartzen badizkiete, edo ordutegi aldetik malgutasun handiago izatea lanaren eta familiaren arteko kontziliazio hobeago baterako.**

Kontziliazioaren arloan, arazorik handiena profesionalizazio gutxieneko lanetan sortzen da, horko ordutegiek ez dutelako malgutasunik. Horren haritik, **enpresei laguntza gehiago** ematera jo behar da, **beren langileentzako kontziliaziorako hobekuntzak bultzatzea erakargarri izan dakieken.**

Bestalde, badira **haur eta nerabeak etxean zaintzeko zerbitzuak edo espazioak**, eta etxeko helduei hazkuntzan laguntzen diete. Euskadiren kasuan, zerbitzu edo espazio horiek familia kalteberei zuzentzen dira, hori da Laudioko Udalaren HEELZ¹⁸ egitasmoaren edo Gasteizko Udalaren “Concilia” programaren¹⁹ kasua, zeinak etxeko pertsona helduentzat baliabide bat eskaintzen baitu goizeko eta arratsaldeko ordutegian prestakuntzetako jardueretara edo laneko elkarriketetara joan daitezten edo euren gizarteratze edo laneratzerako beste gestio batzuk egin ditzaten.

¹⁸ [Laudio Udala](#)

¹⁹ [Concilia](#)

Beraz, esan daiteke **Euskadin badaudela programak eta zerbitzuak, baina ez daude laneko kontziliaziorako**. Zerbitzu horiek izanez gero, hurrek euren etxetan jasoko lukete arreta gurasoek ohiko ordutegietatik kanpo lan egiten dutenean, esaterako asteburuetan edo gauetan, familiako beste sarerik ez dutenean edo familiako sarera jo nahi ez dutenean. Neurri hori bereziki garrantzitsua da guraso bakarreko etxetarako edo familia-sarerik ez duten familientzako. Kofinantzaketa bidezko eredu bat proposatzen da: doakoa diru-sarrera txikieneko etxetarako, eta pixkanakako kostuarekin gaitasun handiago dutenentzako. Neurri horrekin, amek enplegua izatea errazteaz gain, haurren zainketa profesionalizatzen lagunduko luke, eta nahi ez den bakardadea eragotziko luke haurtzaroan.

Arestian aipatutakoaren ildotik, **adin txikikoak zaintzeko kontrataziorako laguntzak sortzea** proposatzen dugu. Save the Childrenen proposamena da mota horretako zerbitzuak kontratatzen dituztenek zuzeneko hobari ekonomikoak edo kenkari fiskalak izatea kontratatzeagatik. Badaude mota horretako bonu-motaren adibide batzuk mendekotasuna duten pertsonen zainketarako, eta kontziliazio-zerbitzuetarako ere jar litezke.²⁰ Neurri horiekin zainketen sektorearen profesionalizazioa eta legezketasuna sustatuko litzateke, eta familiek askotariko aukerak izan ditzakete kontziliazio-zerbitzuetarako sarbidea izanik.

²⁰ Galiziako Xuntaren Bono Coidado-k 5.000 eurorainoko laguntza ekonomikoak ematen ditu urtean mendekotasuna duten pertsonen kontziliazio-zerbitzuak kontratatzeko, errenta edozein dela ere.

Oharmetodologikoa: Euskadiri buruzko eranskin honen kalkulurako estatuko 2024ko Bizi-baldintzei buruzko Inkesta (BBI) erabili izan da, datu gaurkotuagoak dituelako 2022ko Pobreziaren eta Gizarte Desparekotasunei buruzko Inkestarenak (PGDI) baino, eta beste autonomia-erkidego batzuekin eta estatuarekin alderaketak egiteko aukera ematen digulako. Euskadiko laginak 4.500 familia biltzen ditu guztira. **Eskertzak:** Sara de la Rica - ISEAK Fundazioaren zuzendaria. Fernando Fantova - Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Besaldi - Gizarteratze Politikak Ebaluatzeko Organoko titularra. Joseba Zalakain - SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroaren zuzendaria. Alfonso Lopez - EAPN Euskadiren koordinatzailea. Juana Maria Astigarraga - Arartekoaren diru-sarrerak bermatzeko arloaren koordinatzailea.



Save the Children



Editatu:

Save the Children Euskadi
Malatza 2025

